



elkartea@feuse.org
www.feuse.org

Farmaberi



Perretxiko bila FEUSEk antolatutako lehen irteera

ragarrita zegoen bezala, urriaren 20 an, Gazteitzetik, Iruñetik eta Gipuzkoatik etorritako talde bat bildu ginen Lekunberrin onddo bilketari hasiera emateko.

Inoiz ere perretxiko bila joan ez zirenek gehiengoa osatzen zuten. Beraz, beraiantzat bataio eguna suertatuko zen egun hura. Eguna zoragarria zetorren. Goizeko bederatziak ziren Lekunberritik basoruntz abiatu ginenean. Gaua oskarbi izan zen eta hozgiroz (5°C) eta ihintzaz agurtu gintuen eguratsak, gero nolakoa izango zen atarikoa.

Ultzamarekin muga egiten duen Aldatzi dagokion iparraldeko basoa miatzea erabaki genuen. Pagadi ederra, bai horixe. Sartu ginenean eguzkia behelainoen gainetik zegoen jada, eta izpiek argitzen zuten hostoen kolorea, bakoitza bere fiabardurakin, pago-berde distiratsutik hasi eta gorri-horixka eskala kromatikoa ibili ondoren lurgaineko horbel marroi bihurtu arte. Margo-koadro natural zoragarria. Hala bada, otarrea esku batean eta makila bestean, bideari ekin genion.

Hasiera batean denok elkarrekin baso-pistan barrena, baino lehenengo bidegurutzean bitan banatu ginen bilketari etekin oparoagoa lortzeko asmoz. Horrela, lasai-lasai, presarik gabe eman genuen goiza. Perretxikoak hasi ziren azaltzen nonahi, eta jakinminak denak jasotzea bultzatzen gintuen. Baina, jakina, guztiak ezin egun berean ikasi, eta erabaki genuen lehen-



Bildutako perretxiko batzuk

tasuna jangarriei ematea eta pozointsu diren batzuk ere jasotzea eta ikastea.

Jangarrien artean hiru multzo orokor egin genuen txapelaren behelaldearen arabera: orridunak, hodidunak eta ezten edo arantza modukoa dutenak.

Orridunen artean beste bi azpimultzo hartu genuen aintzat: Russulak eta Lactariuak; nola antzeman, nola bereizi elkarren artean eta pozointsuetatik. Oso garrantzitsua da bereiztea *Russula virescens* (gibelurdiña) eta *Amanita phalloides* (hilkorra). Beste orridunak (*Hygrophorus*, *Hygrocybe*, *Laccaria*, *Clitocybe*, *Tricholoma*, etab.) ekidin genituen. Beste batean izango da, Halere salbuespenen bat egin genuen, ugari zegoelako, *Lepista nebularis* (pago-ziza)rekin, batzuentzat jangarria, besteentzat intolerantzia sor-





tzailea. Dena den, bere oparotasuna ikusiz gero, susmagarria. Beste salbuespen bat egiteko asmoa nuen, jangarria delako, *Agaricus campestris* (barrengorria)rekin, baina ez genuen denborarik izan belardi eta zelaiak miatzeko, nahiz eta jakin bazeudela. Halere, jangarri oso estimatua delako, beste salbuespen bat orridunen artean egin nahi izan nuen, baina ezin egin –aurkitu ez genuelako– *Cantharellus cibarius* (zizahoria)rekin. Hodidunen artean *Boletus*ak nolakoak diren ikusi, ikasi eta bildu ere egin genuen, bai horixe, gure pozerako. Hauek dira Euskal Herrian onddo izenekin ezagutzen diren perretxikoak. Gure taldeak onddo zuria (*Boletus edulis*) eta kaskabeltza (*Boletus pinicola*) bildu zuen. Azkenik, ezten edo arantzadunen artean tripakia (*Hydnum repandum*) eta *Hydnum rufescens* bildu genuen.

Pozointsuen artean, perretxikorik politena, *Amanita muscaria* (kuletotsua) *Amanita pantherina* (lanperna txarra) eta *Amanita phalloides* (hilkorra) ikusi eta hartu egin genuen beren bolba eta eraztuna aztertzeko.

Jendeak jangarria dela ezagutzen ez duenez eta, beraz, jasotzen ez duelako ugari aurkitzen zenez gero, perretxiko beltza (*Crathereilus cornucopioides*) mordo bat jaso genuen sopa goxo bat egiteko. Hamabi t'erdia izango ziren kotxeratu ginenean, Aldatzera itzuli. Lekunberrira joan eta San Migelera ko errepidetik Albiraino, hango pinudian esnegorria (*Lactarius deliciosus*) aurkituko genuelakoan, baino gure usteak ustel. Halere aurkitu genuen *Psilocybe* batzuk hurrengo libetean, akelarerra deia jasotzean erabil ahal izateko.

Ordubiak jotzen, urdailak kilimakor eta San Migelera abiatu ginen. Bisitaxo bat elizari bere zaintza eta eguraldi zoragarria eskertzeko. Ondoren jatetxean bildu ginen maingunuan, bazkaldu eta solasaldian emateko azken orduak. Mahaia utzi aurretik azkeneko ikasgaia gastronomiari buruz izan zen. Perretxikoak biltzaile berriek eraman zituztenez gero, kontatuko digute hurrengoan bere saiakerak sukaldean. On egin diezazuela.



Gloria Agirre

Pilotari profesional ohia eta botikaria

Argazkian sari bat jasotzen ageri da Gloria. Ezkerretik hasita hirugarrena da.

Gloria Agirre Egiguren Aizarnako Puertokoan jaio zen eta bizitzako lehen urteak herrian igaro ondoren, hemezortzi urte inguru zituela, Madrilera joan zen pilotari profesionalizateko asmoz. Pilotari bezala bizimodua atera eta ikasketak egiteko aukera ez zuen baztertu; bakillergoa eta farmazia ikasketak egin zituen. Pilota utzi zuenean, Madrilera zentratu botika eta laborategitan lan eginez atera zuen bizimodua. Hainbat urte Madrilera pasa ondoren, duela hamabost bat urte Euskal Herriera itzuli zen eta gaur egun bere jaioerrian, Aizarnan, bizi da eta Azpeitiako Gabriela Garcia de Migue! farmazian egiten du lan, farmazialari adjuntu gisa.

Rurreko batean Zestoan argitaratzen den "Danbolin" aldizkarian Gloria Agirre Feuseko elkartekideari elkarrizketa hau egin zioten. Elkarrizketa pixka bat egokitu dugu gure aldizkariara, besterik ez dugu egin. Bejondeizula, Gloria!

Aizarnarra, emakumea, Madrilera pilotari profesionala, botikaria... hori guztia ulertzea ez da oso erraza...

Nik biki-bikitatik izan nuen pilotarako izugarriko grina eta afizioa. Aita ere pilotaria izan zen. Aizarnan nesken artean ez nuen aurkaririk, baina Euskal Herri osoan ere, emakumeek ez zuten inolako aukerarik pilotan jokatzeko. Nik irakurtzen nuen aldizkarietan eta, nola hemengo erraketistak kanpora joaten ziren pilotan jokatzera. Aitari izugarriko lata ematen nion pilotari profesio-

nala izan nahi nuela esanez. Haiako batean, jakin nuen Anabitarte bilbotarra zela Frontón Madrid pilotalekuko enpresaria eta karta bat idatzi nion nire asmoen berri emanez. Handik laster, Anabitarte gure aitarekin jarri zen harremanetan eta Madrilera joateko buruzpideak egin genituen. Horrela, erabaki genuen Areso pilotari nafarrarekin batera, hura zegoen ostatuan jarriko nintzela bizitzen.

Baina pilotan, garai har-

tan, gaztetxoak eskuz ibiliko ziren eta zuk Madrilen jokatzekotan erraketaz jokatu beharko zenuen...

Bai, hala da. Pilotan jokatzeko grina asetzeko nik, nola edo hala, pilotan jokatu nahi nuen; eta ez nuen beste aukerarik izan, Madrilerara joan eta erraketaz jokatu. Horretarako, aurrez Tolosan ibili nintzen entrenatzen; han bazen neskei erraketaz jokatzen erakusten zieten eskola, Elizondo puntista izanda koaren ardurapean. Eskola horretako pilotari trebeena Madrilerara bideratzen zituzten. Tolosan balekotzat jo ninduten nonbait, eta horrelaxe eman nuen Madrilerako saltoa. Esan beharra dago, erraketa espezialitatean larruzko pilotak erabiltzen genituela, paletaz jokatzeko erabiltzen diren tankerakoak; abiadura handian ibiltzen zen pilota frontoian.

Txikita de Aizarna izan zen zure kirolari izena...

Izen hori Kandido Uranga zenari zor diot. Ordurako pilotan hasita nenbela, Kandidok esan zidan "Txikita de Aizarna" hartu beharko nukeela kirol izen bezala. "Horrela gainera, Aizarna zure jaioterria ere ezagutzera emango zenuke" gaineratu zidan. Hasieran ez nion garrantzirik eman, baina gero polita iruditu eta izen horrekin jokatu izan ditut nire profesional garaioko pilota partiduak.

Kontaiguzu nola izaten ziren Madrileko zuen partiduak: antolaketak, jaialdiak...

Garai hartan berrogeita hamabost bat pilotari izango ginen, gehienak euskaldunak, tartean katalan batzuk ere bai. Hango partiduen funtzionamendua hemengoan tankerakoa zen. Enpresa bat zegoen eta hark jaialdiak antolatzen zituen Madrid frontoian egunero-egunero. Ha-

sieran bi jaialdi, arratsaldean eta gauean, gero gauekoak kendu egin zuten eta arratsaldetan bakarrik jokatzen genuen. Nik jeneralean astean lau partidu jokatzen nituen. Artekariak ere baziren, gu profesionalak bainekin, eta jendea, besteak beste, dirua jokatzerara joaten zen frontoira. Gero, urtean bitan, Sanisidroan eta Gabonetan, txapelketak antolatzen zituzten lau bikote onenekin. Bi-bitara jokatzen genuen eta ni aurrelaria nintzen.

Zeinek osatzen zenuten hango pilotari koadrila?

Txikita de Anoeta aipatu beharko nuke denen gainetik; hark aparteko maila zuen, aurrelari bikaina zen. Ni baino zaharragoa zen eta ni baino lehenago joan zen Madrilerara; haren kontuak askotan irakurtzen nituen hemen eta gero elkarren aurka jokatzeko aukera izan nuen. Eibar eta Ermua aldetik ere dezente jokatzen ziren. Beste batzuen artean han ziren Agustina, Sorra, Areso, bi ahizpa katalan, Irura...

Profesionalak bai, baina bizimodua ateratzeko modurik izan al zenuen?

Hasieran justu-justu ostaturak ordaintzeko adina edo irabazten nuen. Baina gero partidu nagusiak jokatzen genituenak jornal polita ateratzen genuen. Niretzako, gainera, aukera ederra izan zen farmazia-ikasketak egin ahal izateko. Garai hartan, etxean geldituta, ez nuen inolara ere, ikasketak egiteko aukerarik izango.

"Hoy juega la número uno, Txikita de Aizarna, en el palacio de la raqueta" esaten zuten garai hartako Madrileko egunkarrietan.

Baina, farmazia-ikasketak gogorrek dira. Nola moldatzen zinen pilotan jokatze eta, aldi berean, far-



Gloria Agirre farmazian lanean

mazia ikasketak egiteko?

Arrazoiak duzu. Farmazia-ikasketak gogorrek dira eta asko ikasten nuen. Ikastea zen nire egitekorik behinena. Pilota-partiduak arratsaldeko zapietan edo zortzietan izaten ziren eta, orduetgi horri esker, aldi berean, ikasi eta pilotan aritzen nintzen.

Jendeari burura etor da-kiokkeen galdera: nolatan joaten ziren hainbeste emakume Madrilerara pilotan jokatzerara, eta bizimodua atarra, gainera?

Niri askotan esan izan didate horrelako zerbait. Baina kontua da Euskal Herrian emakumeek ez zutela pilotan jokatzeko aukerarik. Bixia dirudi, euskal kirol bat praktikatzera Madrilerara joan behar. Baina guretzat aukera bakarra Madrilerara joatea zen. Horixe izan da nire kezka nagusietako bat. Guk gustura jokatuko genuen Euskal Herrian, gure herrian, baina errealitatea bestelakoa izan da. Aide horretatik ikusien dut emakumeen pilota jokari ez zaiola aitortu behar hainbat teko mailarik. Hainbat emakume halako afizioz aritu eta ez zuten jaso inolako aipamenik. Euskal Herriki kanpo ibiliginen, halaber, baina gizonezkoen kirolari ema-

ten zaien begirunerik ez du jaso izan emakumeen pilotari jardunak. Gaur egun izan balitz, nik uste, tratu hobea jasoko genukeela.

Pilotak zer eman dizu zuri, zerbait eman badizu behintzat?

Nolabait, pilotarekin zorretan ere banago. Kanpora atera beharra izan nuen, baina beste giro bat, beste herrialde bat ezagutzeko aukera eman dit pilotak. Unibertsitatean joan nintzen, farmazia egin nuen, horrek lanbide bat eman zidan; hori guztia nekez egin ahal izango nuen pilotan ibili izan ez banintz. Gainera, aitortu beharra daukat, nire gustuko kirola praktikatu egin dudala honi dena. Eta orain, berriz, hainbat urte pasa ondoren, Azpeitiako Gabriela Garcia de Miguel farmazian aurkitzen naiz, herritarrei zerbaitu bat eskaintzen.

Gaur egun nola dago emakume pilotarien kontua?

Gaur egun zeharo galduta dago. Gu izan ginen azkeneko pilotariak; gukutzita gero ere, zerbait jarraitu zuten, baina oso gutxi, berehala gelditu zen gutzia bertan beharra. Bizimodua aldatu egin da eta emakumeek ere, beste joera batzuk hartu dituzte.



Opiazeoekiko mendekotasuna

Opiazeoekiko mendekotasunaren tratamenduan hiru fase bereizi behar dira: desintoxikazioa, mendekotasuna gaintzea eta errehabilitazioa. Desintoxikazioa da opiazeoen kontsumoa utzi ahal izatea abstinentzia-koadro akutua izan gabe. Drogazale batek, bestalde, mendekotasuna gaintzen du opiazeoak kontsumitzera bultzatu zituen estimuluak zein egoera desberdinak irrotasunez kontrolatzen dituenean. Errehabilitazioa, zehazki, ez da fase farmakologikorik; hala ere, drogazale ohia birgizarteratzen ez bada aurreko bi faseek ez dute zentzu handirik.

Mendekotasunaren tratamendu farmakologikoaren oinarria opiazeo ilegalaren ordezkari opiazeo legalen bat ematea da, gero eta dosi bikiagotan. Metadona erabiltzen da eskuarki, aho bidez. Bestalde, agonista alfa 2 adrenergikoak (klonidina kasu), abstinentzia-sindrome akutuen sintoma neurovegetatiboei (hiperaktivitate sinpatikoari) aurre egiteko erabil daitezke.

Tratamendua

Metadona-tratamendua asko aldatu da azken urteotan. Heroinazaleen artean hiesa nola zabaltzen zen ikusita, errege-dekretu baten bidez metadonaz mantetze programaren (MMP) arategia 1990ean aldatu zen. Dekretu horren arabera, MMPn parte hartu ahal izateko pazienteak opiazeoekiko mendekotasuna zuela diagnostikatuta izan behar zuten, denboran beste desintoxikazio-programa desberdin batean gutxienez parte hartu behar izan zuten, hiesa ez zuten behar, ezta patologia organiko larriarik ere. Horiek horrela, 1994 urtearen bukaeran, Espainian, metadonaz tratatzen ziren pazienteak 15.000 inguru ziren. 2003an, berriz, 88.700.

1996ko errege-dekretu baten bidez tratamendu horiek erraztu ziren. Hau da, MMPn parte hartu ahal izateko baldintza bakarra pazienteak opiazeoekiko mendekotasuna zuela diagnostikatuta izan behar zuten. Profesional pribatuak ere preskribatu ahal zuten metadona eta, bestalde, zegokion autonomia-administrazioak akreditatutako edozein farmaziatan dispentsatu ahal zen.

1996ko otsailean, lehen MMP abian jarri zen farmazietan; Euskadiko farmaziak, hain zuzen, hasi ziren metadona dispentsatzen. Osakidetza eta Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazialarien Kontseiluaren lankidetzaren fruitua izan zen. Urte bereko abuztuan, Osasunbideak eta Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialak lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu zuten metadona dispentsatzeko farmazietan. Gaur egun, Nafarroan 101 farmazietan dispentsatzen da metadona eta pazienteak 287 dira; Araban 10 farmaziak eta 20 pazienteak; Bizkaian 178 farmaziak eta 840 pazienteak eta Gipuzkoan 133 farmaziak eta 478 pazienteak.

1998an, Farmazialarien Elkargo Ofizialak Kontseilu Nagusia, Osasun eta Barne Ministerioa lankidetzaren hitzarmen batean adostu ziren injekzio bidez hartutako drogen arris-



Personak bat metadona hartzen

kuak murrizteko (arrisku horien artean hiesa zegoen, jakina). Horrela hasi zen "hiesaren prebentzio-programa eta metadona-dispentsazioa farmazietan".

Behin pazienteak opiazeorik gabe bizitzen lortzen duenean, komenigarria da zenbait kasutan opiazeoen aurkakoak izeneko farmakoak hartzea (naltrexona erabiltzen da).

Naltrexonak opiazeoen hartzaileak blokeatzen ditu, baina metadonak ez bezala, ez du eragin agonistarik; hau da, drogazaleak bilatzen duen eragin atsegingarriarik ez du.

Naltrexona aukerako tratamendua da opiazeoekiko mendekotasun larria ez duten gizakientzat, ospitaletako zein kartzelatutako kontsumitzaileentzat, baina metadona-tratamendua utzi nahi dutenentzat ere.

Errehabilitazioa da drogazalearentzat faserik garrantzitsuenak. Izan ere, paziente batek drogekiko mendekotasuna gaintzen duenean, gehienetan ez da gauza familia-, lan-, gizarte-harreman egokiak izateko. Beraz, drogekiko mendekotasuna ez da soilik arazo medikorik, ezta arazo farmakologiko soilik ere; drogekiko mendekotasuna gaitz larria da eta diziplina aniztetatik heldu behar zaio. Drogazale bati metadona ematen zaio opiazeo ilegalak ordezkatzeko (metadona, azken batean, opiazeo bat da morfina bezala). Baina helburuak drogazalearen birgizarteratzea izan behar du, eta, jakina, asmo handiko xede horri baliabidez hornitu behar zaio.

Osasungoa euskalduntzeko erakundea (OEE)

17. Osasun-Jardunaldiak Donostian, azaroaren 16 eta 17an

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) antolatzen dituen 17. osasun-jardunaldiak Donostian izango dira, Miramar Jauregian, 2007ko azaroaren 16 eta 17an.

Jardunaldiak osasun arloan lan egiten duten profesional euskaldun guztientzat zein ikasleentzat daude zabalik. "Mugimenduen osasuna" gaia izanen dute ardatz. Informazio gehiago: www.oeeegunea.org